

---

Euskaltzaindiaren  
Oroit-Idazkia  
1983-1984



Memoria  
1983-1984  
Real Academia de la Lengua Vasca  
Euskaltzaindia

---












EUSKALTZAINDIA  
AZKUE BIBLIOTEKA



Euskaltzaindiaren  
Oroit-Idazkia  
1983-1984

©Euskaltzaindia  
Arbieto, 3 - 48008-Bilbao  
Imprenta Industrial S. A.  
Alda Mazarredo, 57-61 - 48009-Bilbao  
Depósito Legal: BI-1176-1985

<b>SARRERA</b>	6
Historia laburra	6
Bost Euskaltzainburuak	21
Euskaltzainen zerrenda	29
Euskaltzain ohorezkoen zerrenda	29
Euskaltzain urgazleen zerrenda	29
Organigrama	32
<b>1. EKINTZA NAGUSIAK</b>	36
1.1. Bilkura eta Akademi bilerak	36
1.2. Ekintza ordezkagarriak	40
1.3. Zenbait ekintza akademikoren aipamena	43
<b>2. IKER SAILA</b>	44
2.1. Hiztegegintza Batzordea	44
2.2. Gramatika Batzordea	44
2.3. Dialektologi Batzordea	46
2.4. Onomastika Batzordea	47
<b>3. JAGON ETA DIBULGAZIO SAILA</b>	48
3.1. Literatura Batzordea	48
3.1.1. Euskal Idazleen Elkarte	49
3.2. Bertsolaritza Batzordea	49
3.3. Etsaminen Batzordea	50
3.4. Oinarrizko Euskararako Batzordea	51
<b>4. ITZULPENAK</b>	52
4.1. Itzulpen eta Kontsulta Zerbitzua	52
4.2. Itzultzaile Eskola	53
<b>5. BIBLIOTEKA ETA ARGITALPENAK</b>	54
5.1. «Azkue Biblioteka»	54
5.2. Argitalpenen Batzordea	56
5.3. Argitalpenen Banaketa Zerbitzua	60
<b>6. EKONOMIA</b>	62
6.1. 1983. urteko Balantzea	62
<b>7. AURKITEGIA</b>	63



---

### Historia laburra

---

Euskaltzaindia 1918-1919 urtean euskal lau Diputazioen babespean sorturiko Erakundea dugu. Berau, urteetan zehar gure kulturaren eragilerik garrantzitsuenetarikoa izan da euskararen ikerketa eta jagon sailean.

Hain zuzen Euskaltzaindia izan da, 1936-1939. etako espainiar gerratearen ondoren komenientzia eta jasamenezko gorabeheretz, bizirik iraun duen euskal erakunde bakarra, arik eta Juan Carlos Erregek, mila bederatzehun eta hirurogei eta hamaseiko Otsailaren hogeiei eta seian Madriden emandako 536/76 Erret Dekretuaren bitartez ofizialtasun osoa lortu zuen arte. Dekretu honen arabera Euskaltzaindiaren eremua Hegoaldeko Euskal Herri guztira hedatzen da.

Eusko Kontseilu Nagusiak, bere aldetik, mila bederatzehun eta hirurogei eta hamazortziko Martxoaren 6an, euskara jagon, landu, finkatu eta bateratzeko Euskaltzaindia Euskal Herriaren Erakunde ofizialtzat hartzea erabaki zuen.

---

### Euskaltzaindi bat sortzeko asmoaren berri zenbait

---

XIX. mendean sortu ziren lehen nahi eta asmoak euskararen akademia sortzeko.

Hona hemen asmo horren aitzindaritzat jo daitezkeen izen batzuk: Ulibarri, Aizkibel, Bonaparte Printzea, d'Abbadie, Manterola eta beste. Euskararentzat Akademia bat behar dela aldarrikatzen dute jaun horiek.

Aurrelarien artean Aristides Artiñano bizkaitarrak (1840-1911) Academia Bascongada egiteko asmoa ozenki aurkeztu zuen Durangoko Euskal Jaietan eta Arautegia prestatzeraino iritsi zen.

Bizkitartean, Pirinioen alde bietako ahaleginek banaturik jarraitzen dute; baina 1900. urtean indarrez sortu zen Euskal Herriaren alde bietakoen kezka bateratzeko asmoa eta Hendaia (1901) eta Hondarribiko (1902) Batzarreak egin ziren, beraietan hizkuntza bateratzearen auziari helduz. Ondorioak txar xamarrak izan ziren. Ortografia bateratua erabilteari buruz ez ziren bat etorri eta





---

banatzea erabaki zuten. Iparraldekoek *Euskaltzaleen Biltzarra* deritzon elkarte sortu zuten eta Hegoaldekoek *Euskal Esnalea*.

Urteak joan eta urteak etorri, gero eta garbiago ikusten zen partikularren ahaleginak hutsalak gertatzen zirela. Herri-agintarien laguntzak bakarrik lortuko zuen erakunde akademikoa garatu ahal izatea.

Honela ba, 1906 eta 1907an, Adolfo Gabriel Urquijo, Bizkaiko Diputazioaren Buruak Arautegi bat prestatu zuen, Aristides de Artiñanoren aurreproiektua oinarritzat harturik.

---

## 1918. Akademiaren sorrera

---

Bizkaiko Diputazioak, 1918.eko Urtarrilaren 25eko bere batzarrean, Ramón de la Sota Aburto Buru zelarik, Kosme Elgezabal eta Félix Landaburu diputatu jaunek egindako proposamena onartu zuen; bertan zera eskatu zuten, hots, Hego Euskal Herriko beste Diputazioekin batera Akademia sortu eta beren laguntzaz eutsi ziezaiotela.

Asmoa kontutan harturik Eusko Ikaskuntzaren I. Batzarrea urte bereko udan Oñatiko Unibertsitate zaharrean egiteko deia zabaldurik zegoenez gero, Diputazioek Batzarreari eskatu zioten proiektua eta berau mamitzeko era azter zitzala. Hemen, Batzarre honetan, Domingo Agirre (1864-1920), Hizkuntza Sailaren Buruak, eskatu zien sailkideei beren eritzia eman zezatela euskara ikertu eta jagoteko erakundea sortzeaz. Denek baietz esan zuten aho batez. Eta gainera, gorporazioaren jardun-eremua ere zedarritu egin zen, alegia: euskararen ikerketa linguistikoa eta beroni babeska eman eta irauneraztea izanen ziren helburuak.

Berehala Batzordea izendatu zuen Akademiaren Arautegiaren Aurreproiektua lantzeko. Nornahiren ideia eta proposamenak jasotzeko epearen ondoren, Erraimundo Olabidek (1869-1942) Aurreproiektua egin eta berriz ere prentsa bidez jendaurrera azaldu zen zuzenkizunak eta oharrak biltzeko.

Honela, betekizunok burutu eta jasotako oharrak kontutan hartuz gero, 1918.eko Azaroan izan zuen erabateko onarpena proiektuak.

Oñatiko Batzarrean sortutako Eusko Ikaskuntzak, Arautegiaren proiektua lau Diputazioetara bidali zuen eta

---

berauek baiezkoa emanik erantzun zioten, hots:  
Gipuzkoakoak, Apirilaren 11an; Bizkaikoak, Maiatzaren  
5ean; Arabakoak, Irailaren 2an eta Nafarroakoak, 1919. urte  
bereko Irailaren 3an.

Euskaltzaindiaren Egoitza Bilbon eta Ordezkaritzak,  
Donostia, Gasteiz, Iruñea eta Baionan daude. Batzarre  
gehienak Donostian egiten dira erosotasunari begiraturaz.  
Beste zenbait ekintza, barne jardunaldiak, mendeurrenak eta  
ospakizun batzu Euskal Herrian zehar burutzen ditu  
Euskaltzaindiak, geroago adierazten den eran.

Euskaltzaindiaren ohizko aurrekontua lau Diputazioek  
emandako diruz betetzen da, batez ere.

1927. urtean, Azkue eta Urkixo, Erret Akademia  
Espainiarrak kide oso izendatu zituen, euskararen ordezkaritza  
gisa.

---

## Lehen euskaltzainak

---

Arautegi zaharrean Euskaltzain osoak hamabi ziren.  
Hauetako lau Oñatiko batzarrean berean izendatuak izan ziren:  
Resurreccion Maria de Azkue, Erakundearen lehen Buru  
hautatua eta 1951ean hil zen arte berrautatua; Arturo  
Campion (1854-1937), Luis Eleizalde (1873-1923) eta Julio  
Urquijo (1871-1950).

Gainerako zortziak hautatzeko batzarre bereziko deia  
egin zen eta 1919. urteko Irailaren 21ean Gipuzkoako  
Diputazioaren jauregian honako hauek hautatu ziren, hots:

- Txomin Agirre
- J. Blaise Adema apaiza (Gratien Adema «Zalduby»  
poetaren iloba).
- Jose Agerre.
- Pierre Broussain.
- Juan Bautista Eguskitza
- Erramun Intzagarai
- Pierre Lhande eta
- Erramun Olabide.

Ademak eta Agerrek izendapenari uko egin eta Agirre eta  
Broussain hil zirelako, Euskaltzaindiak beste hauek  
hautatu zituen hutsuneak betetzeko:

- Seber Altube
- Georges Lacombe
- Martin Landerretche eta
- Damaso Intza (Mikel Olasagarreren erlijio izena).

---

1920.eko Lehen Arautegi eta Barne Erregela haien ondoren, berriak argitaratu zituen Euskaltzaindiak 1954.ean euskaltzainen kopurua hamazortziraino gehiturik, eta 1972.ekoek hogeit eta lauraino zabaldu zuten kopuru bera.

Euskaltzaindiak ohorezko euskaltzain izendatu zituen Hugo Schuchardt (1842-1927) hizkuntzalari alemaniarra; Julien Vinson (1843-1926), frantsesa eta Christianus Cornelius Uhlenbeck (1866-1950), holandarra, euskararen ikertzaile gailenak ziren eta.

Bestalde, euskaltzain urgazle izendatu zituen, besteak beste, Ramon Menendez Pidal (1869-1968), espainiarra; Edward Spencer Dodgson (1857-1922), ingelesa; Theodor Linschmann, Herman Urtel (1873-1926) eta Heinrich Winkler (1848-1930), alemaniarra eta Henri Gavel (1878-1959), frantsesa.

Euskaltzaindiaren lan, ikerketa eta agiriak 1920.etik gure egunotara arte, **Euskera** agerkarian, beraren aldizkari ofizialean, argitaratu ditu Euskaltzaindiak. Eta 1980.ko 1. zenbakiak 1920.etik hasi eta 1970. urtera bitartean burututako lanen *Aurkibidea* dakar autore eta gaiz eta bertan ikusi ahal dugu Euskaltzaindiak bere bizitzan egindakoa.

---

## 1920-1937 urteen bitarteko ekintzak

---

Lehendabizi hartu zuen neurrietako bat idazkera sistema desberdinen artetik bateratu bat prestatzea izan zen.

Askozaz zailagoa gertatu zitzaion, historian zehar, Euskal Herriko eskualde desberdinak isolatuta garatzeagatik sortu diren literatur-hizkuntza desberdinen artetik «bakarra eta bateratuaren beharrezko moldea» erabakitzea.

Arautegiaren 6. artikuluan jasorik dago kezka hau: «Ekingo du euskalgi oroen odolez azitako euskal-eredu bat gertutzen, itzez, itz-joskeraz ta idazkeraz albait erabatetsuena, euskaldun guziak idatz-irakurketan erabiltzekoa».

Honela ba, Euskaltzaindiak A. Campion eta P. Broussaini eskatu zien garrantzizko gai honi buruz txosten bat prestatzeko eta «Informe a la Academia de la Lengua Vasca sobre la unificación del euskera» izenburua jarri zioten.

---

Hona zer deritzoten arazoari, alegia:

1. Euskaltzaindiak daukan larriena dela,
2. Soluzioa atzeratzerik ez dagoela,
3. Batzorde berezi bat eskatzen duela.

Auzi honen inguruan lan eta proposamen ugari sortu zen.

Hala eta guztiz ere, Ramón Menéndez Pidal eta Julio Urquijok «hizkuntza artifizial gisako bat» sortzearen arriskua salatuz, halako galga jarri zioten asmoari.

Baina kezka larriak bizirik zirauen. Komunikabideen hazkundeak, ordurako zeudenak eta etorkizunekoak, berehalako soluzioa eskatzen zuten.

Ordurako garabidean zegoen zenbait joera:

R. M. Azkuek bere gipuzkera osotua aldarrikatzen zuen, «gipuzkerazko euskalkian oinarriturik, beste euskalkietako txerto eta ekarkinez aberastutako hizkuntza mota bat».

Bestalde, garai hartan «jatorri erromanikoa zeukaten hitzak ordezteko edo zertasun berriak adierazteko sorturiko hitz berriak uholdeka ari ziren sartzen». Urquijok eta Lacombe gogor egin zuten Euskaltzaindiak ez zezan neologismo edo hizperririk sor edo babes, zeren egiteko hau idazleen eta herriaren egitekotzat jotzen bait zuten.

R. M. Azkuek ekarpen garrantzitsuari ekin zion *Morfología Vasca* izenpean osotu eta argitaratu ziren lanak eskainirik.

R. M. Azkuek *Erizkizundi Irukoitza* zeritzona proposatu zuen, hots, galdesorta hirukoitz gisakoa, inkestabidez, Euskal Herriaren alderdi desberdinetan ematen ziren fenomeno fonetiko, morfologiko eta lexikalak hobeki ezagutuz, hizkuntza bateratua oinarritzeko.

Beste eginkizun garrantzizkorik ere hartu zuen bere gain Euskaltzaindiak *Espainiera-Euskara hiztegia* prestatzea. Azkué berak moldatu zuen *Euskara-Espainiera-Frantses* hiztegiaren bigarren atal gisa.

**Euskera** agerkariaren lehen aroan, gramatika, dialektologia eta euskararen beste alderdiei buruzko lan ugari eman zuten argitara euskaltzainek, Azkuez gainera: Seber Altube, Joan Bautista Eguzkitza, Damaso Intza, Nicolas Ormaetxea «Orixe», Gerhard Bähr eta beste batzuek.

Euskaltzaindiak sorturiko literatura sari desberdinen eraginpean ere egin zen lan, Eleizalde eta Schuchardt hiltzean sortu zirenak lekuko.

---

Euskaltzaindiak bere kideak bidaltzen zituen ikastetxeetako epaimahaietan buru izatera, kontsulta-galdeei erantzuten zizkien, itzulpenak egiten zituen Herri Erakundeek hala eskatuz gero. Gogora bedi Euskaltzaindiaren ziurtagiriak puntua balio zuela Bizkaiko Auzo Ikastoletarako irakasle postua lortzeko oposizioetan.

Behin eta berriz arduratu zen Euskaltzaindia gerrate zibilaren aurretik Instrukzio Publikoaren Ministeritzari euskara eskoletan sartzeko eskabidea egiteaz.

---

### Euskaltzaindia Gerra Zibilaren ondoren

---

Garai txarrak izan ziren Euskaltzaindiarentzat gerrate eta gerrate ondokoak. Gerrak sakabanatu egin zituen euskaltzainak, eta zenbaitek erbestera jo behar izan zuten. Denboraldi batez ez zen egin batzarrerik. R. M. Azkueren lan isilak bakarrik isuri zuten argitasun ahula.

Une hartan ondo kokaturiko pertsonen ihardunari esker 1941. urtean lortu zen berriro lanari ekitea, baina urrats neurtuak emanaz.

Zenbait euskaltzain hil zirelako eta beste batzu erbestean zeudelako 1941tik 1952ra bitartean Ignazio Maria Etxaide, Nazario Oleaga, Aingeru Irigarai eta Federiko Krutwig jaunek euskaltzain izendapena izan zuten.

Gauzak honela, eta R. M. Azkueren proposamenez, Krutwig jaunari eskatu zitzaion ekintza-egitarau bat burutzeko Euskaltzaindia lozorrotik atera eta euskararen aldeko kanpo-ekintza biziberritzeko.

Juan Miguel Seminario de Rojasena izan zen lehenbiziko euskaltzain sarrera agerian ospatu zena.

F. Krutwig jaunaren proposamenez euskaltzainak hamabi izatetik hamazortzira pasatu ziren.

Honela aukeratu zituzten, 1950. urtean, R. M. Azkue Buru zela eginiko bileran, Jean Saint-Pierre, René Lafon, Pierre Lafitte, Manuel Lekuona eta Louis Dassance. Eta hurrengo urtean Juan Gorostiaga eta 1952.ean Luis Villasante, egungo Euskaltzainburua.

R. M. Azkue hil ondoren, Ignazio Maria Etxaide aukeratu zuten Euskaltzainburu eta hamar urtetan iraun zuten karguan. Garai honetan gazte-jendea sartzen da Euskaltzaindira eta lan nabarmena burutzen. Aipagarria da


garai txar eta zail haietan Alfontso Irigoienek egindako lana: Euskaltzaindiaren Egoitzan kontsulta-galdeei erantzuteaz gainera, euskara indartzeko jaialdiak antolatzen zituen, maila apalean bazen ere; batez ere bertsojaritza, gure herrian hainbesteko garrantzia daukan herri literaturazko gertakari hau biziberritzen burutu zuen ekintzarik behinena.

1953. urtean ibilpide berriari ekiten dio **Euskera** agerkariak, 1920.etik 1937.era bitarteko zenbakien *Aurkibidea* argitaratuz.

Literatur-ariketak plazaratzeko beharrezkoak dira Aurrezki Kutxen laguntzak, eta zorionez, ondorio onik lortzen hasia dugu Euskaltzaindia alor honetan.

Jendeaurreko Biltzar sail bati hasiera ere ematen zaio, euskara eta beronek dauzkan arazoei buruzko jakingura erne dadin. Hauetariko lehena, estudio eta ikerketazkoa Arantzazun egin zuen Euskaltzaindiak 1956.eko udan. Ondoren, honako hauek egin zituen, alegia: Bilbon 1958.ean, Donostian 1961.ean, Arantzazun 1963.ean, Loiolan 1964.ean, Arantzazun 1968.ean, Bergaran 1978.ean, Arrasaten 1979.ean eta Iruñean 1984.ean.

Urte luzetan Euskaltzaindiak bere eskutik eraman ditu Alfabetatze ikastaldiak, Rikardo Arregiren ekimenez sortuak (1942-1969), euskaraz jakin arren, idazteko eta irakurteko gai ez diren helduentzat. Euskararen irakasle titulua ere sortu zuen, berau eskuratzeko beharrezko ziren ikastaldiak eta azterketak antolatuz. Titulu hau ematea, Euskal Herriko Komunitate Autonomoari dagokionean, bertako Gobernuaren esku utzi du oraintsu; baina Nafarroan aipatu tituluak ematen jarraitzen du Euskaltzaindiak.



Bestalde, obra klasikoen berrargitalpenak babestu ditu, hain zuzen, 1954.ean Pedro Axular idazlearen *Gero* argitaratu zuen; 1956.ean literaturazko obren bilduma bat argitaratzeari ekin zion; *Len eta orain* zeritzon baina eskuarte ekonomikorik ez zegoelako bertan behera utzi behar izan zuen. Hona hemen bertan agerturiko obrak: Felipe Arrese Beitiaren (1841-1906) *Olerkiak*, Francisco Ignacio Lardizabalen (1806-1855) *Testamentu Berriko Kondaira edo Historia*, Jose Luis Alvarez Enparanza «Txillardegi»ren *Leturiaren Egunkari Ezkutua*, eta Felix Bilbaoren *Ipuin Barreka*.


1979. urtean, Euskaltzaindiak «Euskararen Lekukoak» deritzon alor bati ekin dio bertan hamar zenbaki argitaratuz.

Bestalde, Euskaltzaindiak *IKER* Sail eta *JAGON* Sailari ere ekin dio, lehenean hiru tomo argitaratuz eta bigarrean liburu bat.

Dagoneko esan dugunez, 1968.ean Biltzarra egin zuen Euskaltzaindiak Arantzazun sortu zeneko 50. urteurrena ospatzeko; bertan kanpoko eskabideari erantzunez heldu zion literatur-hizkuntza bakarra eratzearen auzi zail eta garrantzitsuari. Hemendik sortzen dira orientabide berriak ortografiaren eremuan ezezik baita deklinabide, aditz-jokaera eta lexikoari dagokionetan ere, hizkuntza bateratzearen sail batzu baizik ez aipatzearren.

1980. urteko Abuztuaren 25etik 29arte *Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak* egin zituen Euskaltzaindiak eta mundu guztitik hizkuntzalariak biltzea lortu zuen Gernikan eta Leioan, elkar ezagutu eta beren estudioak ekarteko eta beraien ikerketen ondorio gisa txosten eta adierazpenak aurkeztu zituzten Fonologia, Lexiko-Estatistika eta Tipologia, Sintaxia, Dialektologia, Aditz-Morfologia etab. antzeko gaiei buruz; lanok liburu batean argitaratu ditu Euskaltzaindiak Eusko Jaurlaritzaren babespean, euskararen ikerketari buruzko monografiak osotuko duten *IKER* sortari hasiera emanik. Sorta honetako bigarren liburua Euskaltzaindiak Pierre Lafitte, euskaltzain osoari eskaini dio Euskal Herriko Unibertsitateko «Doctor Honoris Causa» izendatu dutelako, omenaldi gisa. Bigarren liburu hau Gipuzkoako Foru Diputazioaren babespean argitaratu du.

Eta sorta honetako hirugarrena, *Erizkizundi Irukoitza*, Ana M.<sup>a</sup> Echaidek paratua, 1983. urtean argitaratu zuen Euskaltzaindiak, Bizkaiko Foru Diputazioaren babespean. *IKER 3* hau R. M. Azkuek izendaturiko *Erizkizundi Irukoitza* delakoan oinarritzen da. Tomo bi dauzka, hots,





lehenean inkestak eta hauei buruzko oharrak, eta bigarreanean, mapak.

1980. urtean Euskaltzaindiak Itzultzaile Eskola sortu zuen Donostian, 1980-1981 ikasturtean abian hasiz. Gero Eusko Jaurlaritza Autonomoaren begipean ari da.

1981.eko Apirilean zehar Dialektologi estudioetarako sarrera-ikastaldia antolatu zuen Deban, Bartzelonako hiru irakasle, Toulouseko bat, Kaliforniar bat eta Euskal Herriaren Unibertsitateko zenbait gai honetan espezialista zirenen partaidetzarekin. Gai honi buruzko estudioak egin ditzaten ikasleak prestatzea zuen helbururik nagusiena.




Aldi berean, lan garrantzitsua burutu du Euskaltzaindiak azken urteotan argitalpen sailean, honako tituluok plazaratu dituelarik, zenbait Erakunde eta Merkatal etxeren babespean, hots:

1. *Euskal Izendegia*, hiru argitalpen desberdin.
2. *Merkatalgo Izendegia*, argitalpen bi.
3. *Zortzi urte arteko ikastola hiztegia*.
4. *Euskal Herriko Udalen Izendegia*.
5. Ikastolek eskaturik, Oinarrizko Hezkuntza Orokorrerako ikasliburu itzulien hizkuntz-gainbegiratzea.
6. SIADECO elkarte espezializatuari lankidetzara eskatuz lau obra baliotsu argitaratu ditu, Euskaltzaindiak, hots:

*Erizkizundi Irukoitza*  
aurkezpenean Bizkaiko  
Foru Diputazioan.

- 6.1. *Euskararen Liburu Zuria* (euskaraz eta gaztelaniaz).
- 6.2. *Hizkuntz borroka Euskal Herrian* (euskaraz eta gaztelaniaz).
- 6.3. *Estudio socio-lingüístico del Euskara* (13 liburu).
- 6.4. *Bases para un futuro plan de actuación en favor de la normalización del euskara.*
7. Hizkuntza bateratzearen ildotik *Euskal Aditz Batua*.
8. Oinarrizko euskararako batzordeak, Iberduero enpresako euskal Kultur Mintegiaren babespean, hiru mailatan sailkaturik hurrengo liburuok argitaratu ditu, alegia:
  - 8.1. *Hitz egin I: Irakaslearen liburua.*
  - 8.2. *Hitz egin I: Ikaslearen liburua.*
  - 8.3. *Hitz egin I: Ariketa idatziak.*
  - 8.4. *Errekalde kaleko burruka.*
  - 8.5. *Aireportuko espioia.*
  - 8.6. *Kotxe lapurrak.*
  - 8.7. *Oinak.*
  - 8.8. *Ikasle Israelen.*
  - 8.9. *Hitz egin II: Irakaslearen liburua.*
  - 8.10. *Hitz egin II: Ikaslearen liburua.*
  - 8.11. *Hitz egin II: Ariketa idatziak.*
  - 8.12. *Frantses bi Donostian.*
  - 8.13. *Nire izeba maitea.*
  - 8.14. *Zoritxarreko zoriona.*
  - 8.15. *Harriak.*
  - 8.16. *Hitz egin III: Irakaslearen liburua.*
  - 8.17. *Hitz egin III: Ikaslearen liburua.*
  - 8.18. *Hitz egin III: Ariketa idatziak.*
  - 8.19. *Itsasoa eta ni.*
  - 8.20. *Ipuin Beltzak.*
  - 8.21. *Hitz egin III: Gidaliburua mailaz maila, Hitz egin metodoaren erabilerarako hitz eta aditz zerrendak.*



---

9. Arestian bilduma berri bati, *Euskararen Lekukoak* deritzonari, eman dio hasiera. Aintzinako idazle euskaldunen edizio kritikoak, euskara eta beronen literaturaren historia ikertzen laguntzeko oinarritzko agiri bilketa.

Dagoeneko hamar liburu agertu dira aipaturiko biduman, zenbait erakunde eta argitaratzailearen babespean, hots:

- 9.1. *Doctrina Christioarén Catechima*,  
Joakin Lizarraga Elkanokoa,  
Juan Apececheak paratua.
- 9.2. *Linguae Vasconum primitiae*,  
Bernard Etxepare,  
Patxi Altunak paratua.
- 9.3. *Manual devotioezcoa*,  
Joannes Etxeberri Ziburukoa,  
Patxi Altunak paratua.
- 9.4. *Mendibururen idazlan argitaragabeak* bi liburu.  
Sebastián Mendiburu,  
Patxi Altunak paratua.
- 9.5. *Kredo edo sinhesten dut esplikatua*,  
Etienne Lapeyre,  
Luis Villasantek paratua.
- 9.6. *Lehen liburua edo filosofo huskaldunaren ekheia (1785)*,  
Jusef Egiategi,  
Txomin Peillenek paratua.
- 9.7. *Catechima laburra eta Jesus-Christ goure ginco*  
*Jaunaren eçagutçia salvatu içateco*,  
Athanase Belapeyre,  
Jean Louis Davantek paratua.
- 9.8. *Eguia catolicac salvamendu eternalaren eguiteco*  
*necesario direnac*,  
Bernard Gasteluçar,  
Lino Akesolok paratua.
- 9.9. *Koplak*,  
Joakin Lizarraga Elkanokoa,  
Juan Apececheak paratua.
- 9.10. *Ongui iltzen laguntzecó itzgiaic*,  
Joakin Lizarraga Elkanokoa,  
Francisco Ondarrak paratua.

1982. urtean *Euskal Idazleen Elkartea* sortu zuen, 1983. urtetik aurrera lanean ari dena, aurrerago adieraziko dugunez.

---


Aspaldidanik bidetan dagoen beste proiektua euskararen Atlas Linguistikoa da eta beronen egituratzea batez ere 1980.eko Uztail-Abuztuan Beran eta 1981.eko Apirilean Deban izandako bilkuretan burutu zen. Helburu honekin egindako lehen kanpolana 1983.eko udan burutu zen euskalki desberdinetako anatomi-hitzak bildurik. Une honetan batzorde bat lanean ari da inkesta nolakoa izan behar duen ikertzen.



Baina Euskaltzaindiak bere eskuetan daukan kultur lanik garrantzitsuena R. M. Azkueren hiztegia gaurkotzearena da. Lan hau burutzea Luis Mitxelena Doktoareari eskatu dio; berau euskaltzain osoa eta Euskal Herriko Unibertsitatearen Gasteizko Campusean, Filologi eta Geografi eta Historiako Fakultatean, Euskal Hizkuntzalaritza eta Indoeuroparraren katedra duena delarik.

---

1984. urtean eman ditu Euskaltzaindiak zenbait urrats Egoitza Bilboko Plaza Barrira aldatzeko, baita beraren Biblioteka hara eramateko ere.



Euskaltzaindiak Egoitzaz gainera Ordezkaritzak dauzka Donostian, Gasteizen, Iruñean eta Baionan.

Erribera kaleko Egoitza historikoan dago, oraindik, «Azkue Biblioteka» eta bertan daude Erakundearen artxiboak ere; beronen altxorra R. M. de Azkuek utzitako biblioteka eta artxiboaz osatua da batipat, ondorengo emariez eta erosketez aberasturik, noski.

---

1982.eko Azaroan eta Arrasateko Eskola Politeknikoak utzirik, Juan Carlos Gerra euskaltzain urgazle izandakoaren Biblioteka eta Artxiboa erantsi zaizkio. Eta oraintsu, Norbert Tauer, euskaltzain ohorezkoaren biblioteka, Ernesto Ortiz de Bidasolo eta beste zenbaitzurena. «Azkue Biblioteka» honetako 35.000 bat liburukiak honako gaiei buruzkoak dira: hizkuntzalaritza orokorra, Euskal Hizkuntzalaritza, Euskal Literatura, Euskal Kultura orokorra eta, batez ere, euskaraz zerikusia daukan edozer (gramatikak, hiztegiak, ikerketa linguistikoak etab.) eta dagoeneko gai hauei buruz Euskal Herrian dagoen aberatsena ez bada, aurki izateko bidean dago. Honi buruz zehaztasun gehiago «Azkue Biblioteka» deritzon kapituluan ematen dugu.

---

### Resurrección Maria de Azkue Aberasturi (1864-1951)

---



Resurrección M.<sup>a</sup> de Azkue dugu euskal kulturaren gizonik haundiena. Euskaltzain oso eta lehen Euskaltzainburua. 1919.ean hautatu zuten Euskaltzainburu eta 1951.ean hil arte iraun zuen karguan.

Lekeition jaio zen 1864.ean eta beroni adina euskarak ez dio beste inori zor.

Nautika ikasketak egin zituen Lekeition eta Batxilergoa Bilbon, Gasteizko Seminarioan ikasi zuen Teologia (1885) eta hemendik Salamancara joan zen Eskritura Saindua eta Zuzenbide Kanonikoa ikastera, 1888.eko Uztailean apaiztu zelarik; berehala lortu zuen Doktoradutza Teologian. Urte hartan bertan eskuratu zuen lehiaketaz Bilboko Institutuko Euskararen Katedra eta garai hartako hizkuntzalari eta euskalariekin harremanetan hasi zen. *Euskalzale* (1897-1899) aldizkaria eta gero *Ibaizabal* (1902-1903)

---

argitaratu zituen. Toursen bere *hiztegi* (1905-1906) eskerga argitara eman ondoren Paris, Bruselas eta Koloniara jo zuen musika-ikasketak osatzera. Bi opera estreinatu zituen *Ortzuri* (1911) eta *Urlo* (1914) eta *Cancionero Popular Vasco* obraz Euskal Diputazioek sortutako saria irabazi zuen 1915. urtean. Harrez gero buru-belarri ekin zion euskararen eta euskal folkloreaken aldeko lanari eta zenbait bidaia egin zuen atzerrira biblioteka batzuetako euskal altxorak aztertzerako (Paris, Londres, Berlin eta abarrena). 1927.ean Espainiako Erret Akademiak, kide oso izendatu zuen.

Beraren lan ugariak ia beti **Euskera** agerkarian eta *Revista Internacional de los Estudios Vascos* aldizkarian argitaratu zituen.

Obrarik garrantzitsuenak hurrengo hauek dira:

- *Euskal-Izkindea* (Bilbo, 1891).
- *Diccionario Vasco-Español-Francés*, bi liburuki (Bilbo-Tours, 1905-1906).
- *Cancionero Popular Vasco*, 2 liburuki (Barcelona, urterik gabe).
- *Cancionero Selecto* (Barcelona, 1921).
- *Morfología Vasca* (Bilbo, 1925).
- *Euskalerraren Yakintza/Literatura Popular del País Vasco* (Madrid, 1933-1947) 4 liburuki dauzkan obra elebiduna. Obra hau burutzeko Euskal Herri osoan zehar ibili zen.

Baina obra erraldoi honi zerrenda luzea erantsi behar zaio kontakizun, ipuin, elaberri, estudio, saiakera, itzulpen eta zarzuela, poema sinfoniko, oratorio, opera, jatorrizko kantu, piano, organo eta beste musika tresnetarako ohar eta abarrez osotua.

R. M. de Azkueren nortasuna, zenbait saio gora-behera, oraindik ez dago behar adina azterturik. Ikus bedi «Azkue zenaren gorazarrez» (**Euskera**, 1957) *D. Resurrección M.<sup>a</sup> de Azkue, lexicógrafo, folklorista y gramático*, Luis Mitxelena, Julio Caro Baroja eta Antonio Tovar jaunek idatzia (Bilbo, 1966); «La obra de D. R. M.<sup>a</sup> de Azkue» (Bilbo, 1952), «Del epistolario de Azkue», Alfontso Irigoienek idatzia (**Euskera**, 1957); «El Fondo Bonoparte de Azkue Biblioteca», Jose Antonio Arana Martijarena (*IKER* 2, 1983), etab.




---

---

Ignazio Maria Etxaide Lizasoain (1884-1962)

---



1952. urtean R. M. de Azkue hil ondoren, hautatu zuten Euskaltzainburu eta 1962.ean hil arte, iraun zuen karguan.

Donostian jaioa zen 1884.ean. Ingeniari Industrialak, Gipuzkoako Telefono-Sarearen Buruzagia eta «Julio de Urquijo» Euskal Filologiako Mintegiaren Zuzendaria.

Lan asko idatzi zuen, bai euskaraz eta bai gaztelaniaz, telefoni-teknikei eta hizkuntzalaritzari buruz, batipat. Hona hemen garrantzitsuenak:

- *Telefonoaren sortze eta aurrerapena* (1929).
- *Subfijación, prefijación y composición en el idioma eúskaro* (1911).
- *Tratado de sintaxis del idioma eúskaro* (1912).
- *El verbo vascongado* (1923).

- 
- 
- *Sobre el origen y parentesco del pueblo eúskaro y su idioma* (1935).
  - *Desarrollo de las conjugaciones eúskaras, perifrásticas y sintéticas, respetuosas y familiares* (1943).
  - **Euskera** agerkarian, *euskal Esnalea* eta *Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País* aldizkarietan lankide izan zen.

---

Jose Maria Lojendio Irure (1910-1979)

---



1963-1964 bitartean izan zen euskaltzainburu. Beronen agintepean antolatu ziren Arantzazu eta Loiolako Euskaltzaindiaren Biltzarrak.

---

1954. urtean hautatua izan zen euskaltzain oso erbestean zeuden beste euskaltzainen hutsuneak betetzeko eta beronen buruzagitzaren gidaritzapean Euskaltzaindiak aldi berri eta eginkor bati ekin zion, euskaltzain oso izendatu bait ziren Xabier Diharce «Iratzeder», Alfontso Irigoien, Pierre Larzabal, Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi, Antonio Zavala, Antonio Labaien, Juan San Martin eta Jean Haritschelhar.

1910. urtean Donostian jaioa, 1979.ean hil zen hiriburu berean. Batxilergoa Donostian egin ondoren, Valladolideko Unibertsitatean egin zituen zuzenbide-ikasketak, Madriden eta Parisen Doktoradutza lortu zuelarik. «Julio Urquijo» Euskal Filologiako Mintegiaren kide eta Gipuzkoako Txikien Auzitegiko Buru izan zen.

1930. urtean, San Luis Gonzaga, Gazteria Katolikoko kideen artean sorturiko Luistar Euskal Idazle Bazkuna zeritzon euskal idazleen elkartearen sortzailea eta lehen idazkaria izan zen.

Euskarazko artikulua ugari idatzi zuen *Junior*, *Gure Mutillak*, *Argia*, *El Pueblo Vasco*, etab. bezalako argitalpenetan, batzutan «Bidasoro», «Matia Polloe» eta «Mazkelet» izenordeak erabiliz. Gerraondoan **Euskera** agerkarian, *Egan* eta *Arantzazu* aldizkarietan idatzi zuen.

---

## Manuel Lekuona Etxebeguren (1894- )

---


1966.eko Abenduan hautatua, 1970. urte arte iraun zuen karguan. 1919-ean, Euskaltzaindia sortu zenetik, euskaltzain urgazle eta 1950. urtetik euskaltzain oso izana. Beronen buruzagitzapean antolatu zen 1968. urtean Arantzazuko Euskaltzaindiaren Biltzarra.

1894. urtean Oiartzunen jaioa. Gasteizko Seminarioan burutu zituen bere ikasketak eta irakasle izan zen bertan 1917. etik 1936. urtera bitartean.

Euskaraz eta gaztelaniaz idatzi izan du aldizkari askotan etnografia, historia, arte eta literaturazko gaiak erabiliz.

Beronen lanik garrantzitsuenak hurrengook dira:

- *Métrica Vasca* (1918).
- *La religiosidad del Pueblo* (1924).
- *Establecimientos humanos* (1925).



- *La poesía popular vasca* (Eusko Ikaskuntzaren V. Bazarrea, 1930).
- *Literatura oral euskérica* (1935).
- *Jesús Aurraren bizitza* (1948).
- *Gorozikatik Gurutziagara* (1952).
- *Gabon kantak* (1953).
- *Del Oyarzun antiguo* (1959).
- *Zigor* (1963).
- *Bertsolaritza* (1974).
- *Bilintx eta Xenpelar* (1976), etab.

Manuel Lekuonaren lan osoak hiru liburutan argitaratu ziren 1978. urtean.

Euskaltzaindian burutu zituen lanen artean Pedro Axularren (1556-1644) *Gero* liburuaren laugarren argitalpenaren prestakuntza eta egin zion sarrera aipagarriak dira; liburu hau 1954. urtean argitaratu zuen Euskaltzaindiak. Manuel Lekuona lehen aldian liturgiaren euskaratze lanean zuzendari izan zela gogoan hartzekoa da.

---

---

Luis Villasante Kortabitarte (1920- )

---

1970. urteaz geroztik Euskaltzainburu. Aldi honetan, batez ere azken urteotan, gauzak aldekoago gertatu zaizkiolarik, ezin sinetsizko aurrerapen eta hazkundea ezagutu ditu Euskaltzaindiak.

Gernikan 1920. urtean jaioa. Fraide frantziskotarra, Frantziskotarren Kantauriko Probintziako ikastetxeetan burutu zituen ikasketak. Comillasko Unibertsitatean egin zuen Teologiako Doktoradutza eta irakasle izan da Arantzazuko Teologi ikastetxean eta orain ere bertan bizi da.

**Euskera** agerkarian, hainbat eta hainbat artikulu, aldizkari eta argitalpen desberdinetan artikulu ugari idazteaz gainera, ohizko lankide izan du *Aranzazu* aldizkariak. Besteak beste, honako liburuok argitaratu ditu, hots:



- *Historia de la literatura vasca* (1961, 1979. urtean bigarren argitalpena).
- *Jainkoa* (1962).
- Pedro Axularren *Gero*, argitalpen elebiduna (1964).
- *Jesukristo* (1969).
- *Eliza* (1984).
- *Axular: mendea, gizona, liburua* (1972).
- *Axular-en hiztegia* (1973).

«Luis Eleizalde» euskera bateratzeari buruzko sortan honako lanak argitara eman ditu:

- I. *Hacia la lengua literaria común* (1970).
- II. *La declinación del vasco literario común* (1972).
- III. *Palabras vascas compuestas y derivadas* (1974).
- IV. *Sintaxis de la oración compuesta* (1976).
- V. *Estudios de sintaxis vasca* (1978).
- VI. *Sintaxis de la oración simple* (1980).
- VII. *La H en la ortografía vasca* (1980).

Zenbait lan ere argitaratu ditu monja kontzepzionista frantziskotar baten biografia aztertuz:

- *La sierva de Dios M.<sup>a</sup> Angeles Sorazu* (2 liburuki, Bilbo, 1950 eta 1951).
- *Nire izena zan Plorentxi* (1961).
- *M.<sup>a</sup> Angeles Sorazu: un mensaje para tiempos difíciles* (1981).

Ars-ko Apaiz Santuaren katekesia ere argitaratu zuen: *Goi-argi. Ars-ko erreitorre Santuaren erakusaldiak* (1955).

Fray Pedro Antonio de Añibarroren bi obraren argitalpena ere prestatu zuen: *Voces Bascongadas* (1963), *Gramática Bascongada* (1970). Eta Kandido Izagirreren *El Vocabulario Vasco de Aránzazu-Oñate y zonas colindantes* (1970).

Euskaltzaindiaren «Euskararen Lekukoak» bilduman Etienne Lapeyre-ren *Kredo edo sinhesten dut esplikaturia* argitaratu zuen 1982. urtean.

---

## Euskaltzainen zerrenda

---

- |                            |                                     |
|----------------------------|-------------------------------------|
| 1. Patxi Altuna            | 13. Antonio M. <sup>a</sup> Labayen |
| 2. Jose Miguel Barandiaran | 14. Piarres Lafitte                 |
| 3. Jean Louis Davant       | 15. Emile Larre                     |
| 4. Xabier Diharce          | 16. Pierre Larzabal                 |
| 5. Eusebio Erkiaga         | 17. Manuel Lekuona                  |
| 6. Juan Gorostiaga         | 18. Luis Mitxelena                  |
| 7. Jean Haritschelhar      | 19. Francisco Ondarra               |
| 8. Jean Hiriart-Urruty     | 20. Pello Salaburu                  |
| 9. Damaso Intza            | 21. Juan San Martin                 |
| 10. Alfontso Irigoien      | 22. Jose M. <sup>a</sup> Satrustegi |
| 11. Endrike Knörr          | 23. Luis Villasante                 |
| 12. Federico Krutwig       | 24. Antonio Zavala                  |



Euskaltzaindiaren  
domina.

---

## Euskaltzain ohorezkoen zerrenda

---

- |                             |                                   |
|-----------------------------|-----------------------------------|
| 1. Jacques Allières         | 8. Jesus M. <sup>a</sup> Leizaola |
| 2. Julio Caro Baroja        | 9. Gerardo Lopez de Gereñu        |
| 3. Balentin Enbeita         | 10. André Martinet                |
| 4. Iñaki Eizmendi «Basarri» | 11. Santiago Onaindia             |
| 5. Justo Garate             | 12. Jorge de Riezu                |
| 6. Nils M. Holmer           | 13. Antonio Tovar                 |
| 7. Bedita Larrakoetxea      | 14. Terence H. Wilbur             |

---

## Euskaltzain urgazleen zerrenda

---

- |                                |                               |
|--------------------------------|-------------------------------|
| Jesus Atxa                     | Juan Apecechea                |
| Mikel Atxaga                   | Jose Antonio Arana Martija    |
| M. <sup>a</sup> Dolores Agirre | Jose M. <sup>a</sup> Aranalde |
| Eugenio Agirretxe              | Xabier Aranburu               |
| Gexan Alfaro                   | Adolfo Arejita                |
| Jose Luis Alvarez Enparantza   | Jesus M. <sup>a</sup> Arenaza |
| Xabier Amuriza                 | Jose Antonio Arkotxa          |
| Pierre Andiazabal              | Begoña Arregi                 |
| Marcelino Andrinua             | Francisca Arregi              |
| Lino Akesolo                   | Miren Azkarate                |

Jose M. <sup>a</sup> Azpiroz	Jaxinto Fernandez Setien
Jose Azurmendi	Victoriano Gandiaga
Ricardo Badiola	Marcelino Garde
Gaizka Barandiaran	Jose Garmendia
Federico de Barrenengoa	Juan Garmendia Larrañaga
Iñaki Barriola	Juan Garmendia «Zeleta»
Serafin Basauri	Salvador Garmendia
Jose Basterretxea	Xabier Gereño
Alessandro Baussani	Patxi Goenaga
Isidro Baztarrika	Manex Goienetxe
Juan Jose Beloki	Juan Luis Goikoetxea
Iñaki Beobide	Bernard Goity
Juliana Berrojalbiz	Paul Guilsou
Pedro Berrondo	Marcelin Hegiaphal
Antonio Berrueta	Mariano Iceta
Milagros Bidegain	Rogert Idiart
Antonio Bilbao	Arantza Idiazabal
Felix Bilbao	Joseba Intxausti
Jon Bilbao	Jose Angel Irigarai
Joseph Camino	Jose M. <sup>a</sup> Iriondo
Jacinto Carrasquedo	Michel Itzaina
Junes Casenave-Harigile	Fermin Ixurko
Jorge Cortes Izal	Ramuntxo Kanblong
Jean Pierre Curutchet	Jaime Kerexeta
Piarres Charritton	Xabier Kintana
Pedro Diez de Ulzurrun	Jon Kortazar
Jean Baptiste Dirassar	Daniel Landart
Pierre Duny Pètrè	Mikel Lasa
Kepa Enbeita	Jose Manuel Lasarte
Karmele Esnal	Imanol Laspiur
Bernardo Estornes	Juan M. <sup>a</sup> Lekuona
Jose Estornes	Angel Lertxundi
Eñaut Etchamendy	Gabriel Lertxundi
Jean Baptiste Etcharren	Juan Antonio Letamendia
P. Etcheandi	Xabier Lete
Jacques Etcheverry	Jose Luis Lizundia
Jean Baptiste Etcheverry	Jose Antonio Loidi
Jose M. <sup>a</sup> Etxaburu	Peli Martín Latorre
Ana M. <sup>a</sup> Etxaide	Xabier Mendiguren
Jon Etxaide	Fernando Mendizabal
Jose M. <sup>a</sup> Etxebarria	Marie Jeanne Minaberry
Juan Angel Etxebarria	Justo Mokoroa
Patxi Etxebarria	Jose Antonio Mujika
Peter Etxebarria	Luis M. <sup>a</sup> Mujika
Carmelo Etxenagusia	Beñat Oihartzabal
Eustasio Etxezarreta	Jesus Oleaga
Patrik Farell	Ignacio Omaetxebarria



---

---

Josu Oregi	Patxi Uribarren
Karlos Otegi	Miguel Javier Urmeneta
Txomin Peillen	Ignacio Urquijo
Pedro Pujana	Arantza Urretavizcaya
Jose Antonio Retolaza	Tomas Uthurry
Rudolf de Rijk	Jose M. <sup>a</sup> Velez de Mendizabal
Karmele Rotaetxe	Charles Videgain
Manuel M. <sup>a</sup> Ruiz Urrestarazu	Pedro Yrizar
Ramon Saizarbitoria	Julen Yurre
Jose M. <sup>a</sup> Sanchez Carrión	Patxi Zabaleta
Pedro Sancristóval	Mikel Zalbide
Carlos Santamaria	Gabriel Zapiain
Ibon Sarasola	Ambrosio Zatarain
Jose Ignacio Telletxea	Juan Jose Zearreta
Francisco Tirapu	Manuel Ziarsolo
Juan M. <sup>a</sup> Torrealdei	Agustin Zubikarai
Martin Ugalde	Jose Miguel Zumalabe

---

## Organigrama

---

Euskaltzaindiak bere lana garatzeko zenbait batzorderen azpiegitura dauka, alegia:

---

### EGITURAZKO BATZORDEAK

Euskaltzainburugoa

Ekonomi Batzordea

«Azkue Biblioteka» Batzordea

Argitalpenen Batzordea

### IKER SAILEKO BATZORDEAK

Hiztegitintza Batzordea

Gramatika Batzordea

Dialektologi Batzordea

Onomastika Batzordea

### JAGON SAILEKO BATZORDEAK

Literatura Batzordea

Bertsolaritza Batzordea

Etsaminen Batzordea

Oinarrizko Euskararako Batzordea

---

---

## Egiturazko Batzordeak

---

### Euskaltzainburugoa

---

Euskaltzainburua: Fr. Luis Villasante

Buruordea: Jean Haritschelhar

Idazkaria: Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi

Diruzaina: Endrike Knörr

IKER Sailburua: Luis Mitxelena

JAGON Sailburua: Juan San Martin

Idazkari-ordea: Jose Luis Lizundia

---

### Ekonomi Batzordea

---

Burua: Endrike Knörr

Eragilea: Juan Jose Zearreta

Kontularia: Xabier Gereño

Aholkulariak:

Alberto Garate

Federico González

Jose Luis Lizundia

---

---

## «Azkue Biblioteka» Batzordea

---

Bibliotekaria: Alfontso Irigoien  
Bibliotekari-ordea: Jose Antonio Arana  
Kideak:  
Juan San Martin  
Xabier Kintana  
Juan Jose Zearreta

---

## Argitalpenen Batzordea

---

Burua: Fr. Luis Villasante  
Buruordea: Jean Haritschelhar  
Idazkaria: Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi  
Eragilea: Ricardo Badiola  
Ekonomi Batzordetik: Juan Jose Zearreta  
«Azkue Biblioteka»tik Jose Antonio Arana  
IKER Saitetik: Luis Mitxelena  
JAGON Saitetik: Juan San Martin  
Bi euskaltzain:  
Patxi Altuna  
Federico Krutwig

---

---

---

## IKER Saileko Batzordeak

---

### Hiztegigintza Batzordea

---

Burua: Luis Mitxelena  
Buruordea: Ibon Sarasola  
Idazkaria: Mikel Zalbide  
Idazkari-ordea: Ricardo Badiola  
Kideak:  
Xabier Kintana  
Luis M.<sup>a</sup> Mujika  
Txomin Peillen

---

### Gramatika Batzordea

---

Burua: Piarres Lafitte  
Buruordea: Jean Haritschelhar  
Idazkaria: Patxi Goenaga

---

---

Idazkari-ordea: M.<sup>a</sup> Pilar Lasarte

Kideak:

Patxi Altuna  
Miren Azkarate  
Jose Antonio Mujika  
Karmele Rotaetxe

---

### Dialektologi Batzordea

---

Burua: Francisco Ondarra

Idazkaria: Jose M.<sup>a</sup> Etxebarria

Kideak:

Alfontso Irigoien  
Ana M.<sup>a</sup> Echaide  
Juan Antonio Letamendia  
Charles Videgain

---

### Onomastika Batzordea

---

Burua: Luis Mitxelena

Idazkaria: Jose Luis Lizundia

Kideak:

Jean Louis Davant  
Alfontso Irigoien  
Endrike Knörr  
Emile Larre  
Juan San Martin  
Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi  
Piarres Charritton  
Jean Baptiste Orpustan

---

## JAGON Saileko Batzordeak

---

---

### Literatura Batzordea

---

Burua: Federico Krutwig

Idazkaria: Angel Lertxundi

Kideak:

Xabier Diharce  
Jean Hiriart-Urruty  
Jon Kortazar  
Carlos Otegi  
Arantza Urretabizkaia

---

---

## Bertsolaritza Batzordea

---

Burua: Antonio Zavala

Buruordea: Juan San Martin

Idazkaria: Antton Aranburu

Kideak:

Alfontso Irigoien

Emile Larre

Jose M.<sup>a</sup> Aranalde

Jose M.<sup>a</sup> Iriondo

Michel Itzaina

Juan M.<sup>a</sup> Lekuona

Jesus M.<sup>a</sup> Etxezarreta

Abel Muniategi

---

## Etsaminen Batzordea

---

Burua: Alfontso Irigoien

Idazkaria: Juan Jose Zearreta

Kideak:

Jose M.<sup>a</sup> Aleman

Abel Ariznabarreta

Pakita Arregi

Gotzon Aurrekoetxea

Miren Azkarate

Jose M.<sup>a</sup> Azpiroz

Piarres Charritton

Jazinto Fdez. Setien

Patxi Goenaga

Juan Luis Goikoetxea

Xabier Kintana

Patxi Uribarren

---

## Oinarrizko Euskararako Batzordea

---

Burua: Juan San Martin

Idazkaria: Imanol Unzurrunzaga

Kideak:

Norberto Agirre

Gotzon Aurrekoetxea

Ricardo Badiola

Juan Luis Goikoetxea

Patxi Uribarren

---

# 1. Ekintza Nagusiak

---

---

## 1.1. Bilkura eta Akademi bilerak

---

Euskaltzaindiak bere hileroko batzarre arruntak egin izan ditu eta bai Batzordeetako ohizkoak ere, bere Arautegian agindurik dagoenez, gehienetan Gipuzkoako Diputazioaren jauregian, eta zenbait aldiz Baiona, Bilbo, Iruñe eta Gasteizen. Beroietan, goizean euskaltzain osoen eta Batzordeen bilkura bereziak egin izan dira, eta arratsaldean batzarre arruntak hizkuntzalaritza eta euskal literaturari buruzko txostenekin.

Ohizko bilkurez gainera, Euskaltzaindiak epe honetan ospatu ditu zenbait mendeurren eta gertakari batzarre agiriak egin. Hauen artean:

— 1983.eko Otsailaren 19an, Lakuntzako (Nafarroa) semea zen Blas Alegria idazlearen mendeurrena ospatu zuen.

— 1983.eko Apirilaren 27an, Juan Bautista Gamiz arabarraren idazlan elebiduna —Diputazio eta Euskaltzaindiak elkarlanean argitaratua— aurkeztu zuen Arabako Foru Diputazioan. Obra hau, hila den Juan Goikoetxea Maiza urgazleak prestatu zuen.



---

— Apirilaren 28, 29, 30ean, Angoston (Araba), Euskaltzaindiak III. Barne Ihardunaldiak burutu zituen. Ondorioz, Euskaltzaindiko Batzordeak berregituratu eta 1983-84.eko ibilpiderako jokabide nagusiak onartu zituen.

— Euskaltzaindiak, Maiatzaren 23an, Uztaritzeko Udaletxean, *IKER* bildumako bigarren bolumena —Piarres Lafitte euskaltzain, idazle eta gramatikariaren omenez osatutako ikerlana— aurkeztu zuen.



— Uztailaren 29an, Bizkaiko Foru Diputazioan izan zen batzarrean, **Euskera** agerkariaren berrargitalpena osatzen duten 17 tomoak aurkeztu zituen. Bertan, gerra zibilaren aurretik agerkarian azaldu ziren ikerlan akademiko gehienak biltzen dira. Tomook, Donostiako SENDOA argitaldariaren laguntzaz berrinprimatuak izan dira.

— Irailaren 29an, Markina-Xemeinera hurbildu zen Euskaltzaindia, Dialektologiari buruzko III. Ihardunaldiak burutzerara. Amaieran, 1883.eko Lore Joko eta Euskal Jaien mendeurrena ospatuz, hiriko Udaletxean egin zen batzarrea. Bertan, aurkeztu zen **Euskera** (1984,1) Euskaltzaindiko agerkari ofizialean argitaratu den L. L. Bonaparteren eskuskribuen katalogoa.

— Urriaren 30ean, Azkainera doa Euskaltzaindia, Euskaltzaleen Biltzarra Elkarte Kulturalarekin batera, Jean Elissalde «Zerbitzari»ren —Euskaltzaindiko lehen aroan euskaltzain eta idazlearen— mendeurrena ospatzera.



— 1983. urteko Urtarril eta Urrian, hizkuntz mailegu berrietan erabili behar den ortografia dela eta, bi ihardunaldi antolatu zituen Euskaltzaindiak, Uztaritzen Bordele, Deustu, Nancy, Toulouse, Nafarroa eta beste leku batzutako akademiko eta linguistek parte harturik.

— Martxoaren 30ean, Euskaltzaindiaren aginduz Jose M.<sup>a</sup> Satrustegik paraturiko *Euskal Izendegia* liburuaren hirugarren argitaraldia jendarteratu zen Bilbon; argitarapen honek, Lankide Aurrezkiaren diru laguntza garrantzitsua jaso izan du.

— Egun berean, Baztango seme den Pello Salaburu —euskararen linguistika lanetan trebatua— izendatu zuen gure Erakundeak euskaltzain. Soziologia eta Filologian Doktorea; Euskal Herriko Unibertsitateak Gasteizen daukan Filosofi eta Letretako Fakultatean da irakasle, Aingeru Irigaray Doktorearen hutsunea betetzera dator.

— Maiatzaren 25ean *Azkueren Hiztegia* berrargitaratua aurkeztzen da Donostian, orain dela 80 urte lehen aldiz argitaratu zena. Argitarapen berri hau Luis Villasanteren hitzaurrez eta Luis Mitxelenak idatziriko *Estudio sobre las fuentes del Diccionario de Azkue* izenburutzat daraman lanaz irekitzen da. Gehitu zaizkio balio handiko aurkibideak ere.





---

Liburu honekin, nabarmenki aberasten da Euskaltzaindiak argitaraturiko obren katalogoa.

— Apirilaren 27an, Euskaltzaindiak omenaldia eskaini zion Jose Manterolari Donostian. Partehartzaileen artean ziren: Imanol Murua, Gipuzkoako Foru Diputazioko Kulturarako Diputatua, Luis Villasante Euskaltzainburua, Juan San Martin Jagon Sailburua, Jose Antonio Arana Martija Bibliotekari-ordea eta Jose M.<sup>a</sup> Velez de Mendizabal Eusko Jaurlaritzako Kulturarako Kontseilari-ordea.

— Ekainean, zenbait ekintza atera ziren aurrera Laburdin:

1. Uztaritzen, Euskal Herriko Atlas Linguistikoa moldatzeko IV. Dialektologi Ihardunaldiak.
2. *Jean Etchepare Mirikuaren (1877-1935) Idazlanak* liburuaren aurkezpena.
3. Euskaltzain izan zen Saint-Pierre «Anxuberro»ri omenaldia, Milafranga bere jaioterrian. Parte hartu zuten:
  - Beñat Larramendi Milafrangako auzapezak,
  - Fr. Luis Villasante Euskaltzainburuak,
  - Piarres Charritton euskaltzain urgazleak, eta
  - Xabier Diharce euskaltzainak.

— Euskaltzaindiak Uztailaren 27an, bere Egoitza izango den etxean, Bilbon, gorazarrea eskaini zion euskaltzain eta Euskaltzaindiko Idazkari izan zen Nazario Oleagari. Txostenemaile izan ziren:

- Fr. Luis Villasante Euskaltzainburua,
- Juan Gorostiaga euskaltzaina,
- Jesus Oleaga euskaltzain urgazlea,
- Jose Antonio Arana Martija euskaltzain urgazlea,
- Patxi Zurikarai, Bizkaiko Foru Diputazioan Kulturarako Diputatua.

— Irailaren 25etik 29ra, Euskaltzaindiak X. Biltzarra eratu zuen Iruñean, Arturo Campionen mendeurrenean.



---

— Azaroaren 30ean, Ignacio Maria Etxaide, bigarren Euskaltzainburua izan zenaren oroipen bilkura ospatu zuen, Gipuzkoako Foru Diputazioan.

Parte hartu zutenak:

- Fr. Luis Villasante Euskaltzainburua,
- Jon Etxaide euskaltzain urgazlea,
- Ana M.<sup>a</sup> Échaide euskaltzain urgazlea,
- Xabier Aizarna, Gipuzkoako Batzar Nagusietako Burua.

— Lanaldi honetan bertan ohorezko euskaltzain hauen izendapena eman zuen Euskaltzaindiak ezagutzera:

- Jacques Allières,
- Balentin Enbeita,
- Iñaki Eizmendi «Basarri»,
- Nils M. Holmer,
- Jesus M.<sup>a</sup> Leizaola,
- André Martinet,
- Terence H. Wilbur.

---

## 1.2. Ekintza ordezkagarriak

---

Euskaltzainburugoak —eta, noizbait, Erakundeko beste kide batzuk— Eusko Jauraritza, Bizkaia, Nafarroa, Gipuzkoa zein Arabako Foru Diputazioen aurrean egin ohi dituen azaltzez gainera, ikustaldia egin dio 1983.ean Javier Solana Kulturako Ministro txit agurgarriari.

Euskaltzainburugoak, eraberean, solasaldi sakona izan zuen 1983.ean Maxwell Yaldenekin, Kanadan hizkuntzetarako goimandataria denari Euskal Herrira etorri zenean.

Euskaltzaindia, epe honetan, Euskal Administrazioiko erakunde berrietara deitua izan da. Horrela, Euskal Gobernuko Euskararen Aholku Batzordean parte hartzen du, bai Jean Haritschelhar Buruordea dagoelako, bai erakunde honetan beste euskaltzain batzu direlako, hots: Patxi Altuna, Luis Mitxelena, Juan San Martin eta Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi; baita urgazleak ere hor dihardutelako, hots: Lino Akesolo, Jose M.<sup>a</sup> Aranalde, Jose Antonio Mujika, Josu Oregi, Jose M.<sup>a</sup> Sanchez Carrion, Ibon Sarasola, Jose M.<sup>a</sup> Velez de Mendizabal eta Mikel Zalbide.

---


Halaber, Abenduaren hasieran Eusko Legebiltzarrak HABE —nagusien euskalduntze zein alfabetatzerako erakunde autonomoa— sortzeko legea onestean, Euskaltzaindiaren izenean Juan San Martin —euskaltzain eta JAGON Sailburua— hautatu ziren ordezkari, Patronato Zuzentzailean.

Euskaltzaindiak sasoi honetan izendatu zituen, zegokien batzarretan ordezkari izan zitezten: Alfontso Irigoien euskaltzaina, Bilbo Aurrezki Kutxarako; Xabier Gereño, Bizkaiko Aurrezki Kutxarako eta Juan San Martin, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialerako.

Kulturako Ministeritzaren eskariari erantzunez, Literatura eta Sorpen Literarioak Laguntzeko dauden Sari Nazionalerako ordezkariak izendatu ditu.


*Ossian* saria Luis Mitxelena euskaltzainari eman zitzaionean ere (1983), han izan zen Euskaltzaindia.

Luis Mitxelena Bordeleko Unibertsitatean «Doctor Honoris Causa» izendatzean, Erakundeak hara jo zuen. Baita Barcelonako Unibertsitate Autonomoan ere «Doctor Honoris Causa» izendatu zutenean ere.



Piarres Lafitte eta Jean Haritschelhar, Euskal Herriko Adiskideen Erret Elkartean ohorezko bazkide izendatze egunean ere, han egon zen gure Erakundea.

Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi Idazkaria, behar ziren azterketak egiteko izendatu zen, Norbert Tauer-en —oraintsu hildako ohorezko euskaltzain eta euskalari argiaren— biblioteka eta artxibategia eskura zitza.



Juan San Martin euskaltzainak Erakundearen izenean, Abenduko 2 eta 3an, Pabeko hirian egin ziren «Aquitaniako Liburua»ri buruzko Ihardunaldietara jo zuen.

Esan dezagun, azkenik, gure Erakundeak «Expolangues» nazioarteko erakusketan izan duela dagokion presentzia. UNESCOk antolaturik Parisen egin zen 1984.eko Urtarrilaren 25etik 29ra, Euskaltzaindiak eduki zuen standean euskal kulturarekin zerikusia duten 200 liburu inguru erakutsi zituen. Ikustarien erakusle lanetarako Jean Haritschelhar, Endrike Knörr, Jose Luis Lizundia, Jose Antonio Arana eta Juan Jose Zearreta izan ziren.

Era berean, urte honen Maiatzean, Jean Haritschelhar eta Jose Luis Lizundia, Euskaltzaindiaren izenean eta beste 70 Ordezkaritzarekin batean Estrasburgon izan ziren, Europako kontseiluak Hizkuntza Minorizatuei buruz antolaturiko Ihardunaldietan.



---

### 1.3. Zenbait ekintza akademikoren aipamena

---

Euskaltzain eta Arabako Ordezkarari den Endrike Knörrek, Odon Apraiz jaunaren —Arabako euskararen ikertzaile argi eta ohorezko kidearen— liburutegi, hemeroteka nahiz artxibategiaren katalogatze eta ordenatze lanei ekin dio, Euskal Bibliografiako Institutuaren lankidetzaz.

Ikerlan berdina darabil Piarres Charritonek Piarres Lafitte gramatikalari, idazle eta euskaltzain helduaren lanetan.

Euskaltzaindi eta Real Academia Españolaren kide batzuen artean iradokitako asmoa jasorik, Ekonomi Batzordearen proposamena zela bide, gomita egin zaie Real Academia Galegari eta Institut d'Estudis Catalans-i ihardunaldi batzuk egiteko, guztion onerako izan daitezkeen gaiak sakon daitezen.

Urte berean, Martxoko hilabetean, hurrengo 19 urgazle berrien izendapena zertu zen Gasteizen: Adolfo Arejita, Miren Azkarate, Ricardo Badiola, Manex Erdozaincy-Etxart, Ana Maria Echaide, Jose Maria Etxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Bernard Goity, Jon Kortazar, M.<sup>a</sup> Pilar Lasarte, Angel Lertxundi, Beñat Oihartzabal, Karlos Otegi, Jose Maria Sanchez Carrion, Arantza Urretabizkaia, Jose Maria Velez de Mendizabal, Charles Videgain, Julen Yurre eta Mikel Zalbide.

1984.eko Maiatzaren 22 eta 23an, Euskaltzaindia, Bilbo Aurrezki Kutxak antolaturiko informazio berbaldien bidez kalera azaldu zen, gure Erakundearen betekizun nahiz ekintzak ezagutaraztera. Parte hartu zuten: Fr. Luis Villasante, Jean Haritschelhar, Alfontso Irigoien, Juan San Martin eta Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi euskaltzainek; Jose Antonio Arana eta Jose Luis Lizundia urgazleekin.

Aipagarria da, baita ere, 1984.eko azken hilabeteetan, Gasteizko Ordezkaritzaren egoitza berriko egokitze lanak burutu direla, San Antonio kaleko 41 zenbakian.

---

## 2. IKER Saila

---

Ohizko denez, Erakunde honek eta taldekideek 1983-1984 urteetan bere ikerkuntza lana egin du.

Burutu diren ekintzak zehatzago jakin ahal izateko, laburki bada ere, batzordez batzorde egindako lanaren berri emango dugu.

---

### 2.1. Hiztegi gintza Batzordea

---

Batzorde hau bere azpiegitura antolatuz joan da, tresneria eta honako autore hauei dagozkien fitxategiak prestatzen zituela, hots: Etxepare, Leizarraga, Garibai, Mogel, Betolaza, Barrutia eta XVI. mendeko *Refranes y Sentencias*.

Helburu berarekin aztertu dira «Euskararen Lekukoak» bildumako edizio kritikoak, Belapeyre, Egiategi, Etxepare, Gasteluçar, Joannes Etxeberri, Lapeyre, Elkanoko Lizarraga eta Mendibururen obratan.

Lan hauen ondorioa 26.000 fitxaren erauzketa izan da, Lourdes Larenak egindako lana.

Bestalde, 1984. urtea aurreratua dagoela, Eusko Jaurlaritza, Euskaltzaindia eta hiru Diputazioen Artean garrantzi handiko hitzarmena sinatu da. Helburua: *Orotariko Euskal Hiztegia* prestatzea. Lan honen Zuzendaria, Luis Mitxelena euskaltzaina.

---

### 2.2. Gramatika Batzordea

---

Batzorde honen zeregin nagusia —Piarres Lafitte euskaltzainaren gidaritzapean— Euskararen Gramatika Ofizialeko oinarriak finkatzea izan da. Eta xede hori bera izan du X. Biltzarraren prestakuntzak ere. 1983.ean 15 bilera egin ziren. Ondoko gaiak sakondu eta eztabaidatuz: kategoria gramatikalak, perpausaren egitura, izen sintagma (deklinabidea, izen arruntak eta izen bereziak, izenordainak, determinatzaileak, zenbatzaileak, adjetiboa), izen sintagmak perpausaren daukan funtzioa: kasuak, aditzondoak, interjekzioak.

1984.ean, hasierako hilabeteetan, arras gehitu ziren Batzordearen bilera eta lanak. Jadanik 18 txosten jaso ditu. Euskaltzaindiaren X. Biltzarrerako prestaketak bukatu eta 1984. urteko Irailaren 25etik 29ra Biltzarra egin zen Iruñean, gure Erakundearen euskaltzain sortzaile eta poligrafo izan

zen Arturo Campionen *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara* obra aipagarriaren mendeurrenean.



X. Biltzarrean hurrengo batzarkide eta euskalariek parte hartu zuten:

Inaugurazioan: Gabriel Urralburu jauna, Nafarroako Gobernuko Lehendakariak;

Luis Villasante, Euskaltzainburuak;

Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi, Biltzarrerako Batzorde Eratzaileko Buruak.

Eta txostenemaileek; Jose Javier Granja jaunak eta Rosa Miren Pagola andereak.

Hizkuntz Batzordeak: Burua, Piarres Lafitte; Buruordea, Jean Haritschelhar; Idazkaria, Patxi Goenaga; Idazkariordea, M.<sup>a</sup> Pilar Lasarte.



---

Txostengileek: Patxi Altuna, Patxi Goenaga, Miren Azkarate, Alan King, Jose Antonio Mujika, Karmele Rotaetxe eta Pello Solaburu.

Laguntzaileek: Lino Akesolo, Jose M.<sup>a</sup> Larrarte eta Beñat Oihartzabal.

Azken moldatzaileek: Patxi Altuna eta Pello Salaburu.

Txostenemaileek kronologikoki: Luis Mitxelena, Suzuko Tamura, Beñat Oihartzabal, Georges Rebuschi, Alfontso Irigoien, Jose Antonio Aduriz, Natela Sturua, Y. Vl. Zytsar, Robert Trask, Jose Luis Iturrioz, Andolin Eguzkiza, Txanturia, M.<sup>a</sup> Luisa Picabea, Angel Lopez Garcia, Patxi Oroz Arizkuren eta Gunter Brettschneider.

X. Biltzarrean Txosten nagusia eta beste lanak egin ziren. Txosten nagusia etorkizuneko gramatika arauemailearen abiapuntu bezala jo daiteke. Hori eta beste iker-lanak Euskaltzaindiak Nafarroako Gobernuarekin batera bi liburutan argitaratzeko asmoa du.

---

### 2.3. Dialektologi Batzordea

---

Gorago aipatu dugunez, Markina-Xemeingo Lore Jokoen mendeurrena zela eta, Dialektologiari buruzko III. Ihardunaldiak burutu zituen Euskaltzaindiak herri honetan:

Ihardunaldiotan erabilitako gai nagusiak hiru izan ziren:

- Aurreko udatean egindako bilketaren emaitzak.
- Transkribapenak egiteko modua.
- Atlasa eta galdeketa moldatzeko tresneria teknikoaren hautapena.

Inongo zalantzarik gabe, gairik eztabidatuena nahiz korapilatsuena transkribapenarena gertatu zen, batipat, erabili behar zen alfabeto fonetikoari zegokionean.

Halaber, eztabaida ez zen ttipiagoa izan galdeketa egiteko irizpideak finkatzerakoan. Azpimarragarri deritzogu, gai biotaz eman zen eztabaidan, Euskaltzaindiko kide diren, Jacques Allières Toulouseko Unibertsitateko eta Georges Rebuschi Nancykoaren laguntzari.

Bestalde, adieraz dezagun Jose Maria Etxebarria, Batzordeko idazkariak, Euskaltzaindiaren agindu zuzenez Vienara egin zuen bidaia. Helburua zen Trebisch etnologoak jasoriko grabaketak ikertzea. Trebisch-ek, mende honen atarian, zenbait euskalki eta autore batzuri buruzko datuak bildu zituen.



---

---

## 2.4. Onomastika Batzordea

---

Batzorde honek aurrera eraman dituen lanetan ondokook dira aipagarri:

— Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi Batzordekideak prestatu duen pertsona izenei buruzko *Euskal Izendegia*-ren hirugarren argitaraldia, gehitua eta zuzendua.


— Jarraian datozen udalen izen aldaketari buruz argibideak ematea: Otxandio, Gordoxola, Hiruerrieta, Abaltzisketa, Arrasate, Abadiño, Zornotza, Zerain, Berastegi, Mungia eta Meñaka.

— Basauri, Larrabetzu, Okako Iruñea eta Basauriko kaleei buruzko argitasunak.

— Arabako Foru Diputazioarekin batera, hiru bideren seinaleztapena; baita FEVErekin ere Bizkaian.

Erantzun dira, honez gainera, bide seinaleztapenean diharduten partikularren nahiz enpresen zenbait kontsulta, esatebaterako: Norte Industrial, Telefónica, Bilboko Nazioarteko Erakustazoka, etab.

### 3. JAGON eta Dibulgazio Saila



Jarraiko lerrootan, Euskaltzaindiko kideek Sail honetan egindako ekintza batzuk aipatuko ditugu.

#### 3.1. Literatura Batzordea

Batzorde honi dagozkion zereginen artean ondokoak azpimarra ditzakegu:

— Zuzenean antolatu ditu —Bizkaiko Aurrezki Kutxaren babespean— «Txomin Agirre» nobela sariketa eta «Mikel Zarate» saiakerakoa, 1983.ean. Teatroko «Toribio Alzaga» eta poesiako «Felipe Arrese Beitia», 1984.ean.

— Euskaltzaindiak zuzenean edo zeharka, ordezkariak tarteko direla, sariketa hauetako epaimahaietan parte hartu du: Bilbo Aurrezki Kutxaren olerki, eleberri eta ikerketakoetan.

— Modu berean, Markinako «Lore Jokoen» ospakizunetan izan da partaide. Baita, Bilboko «El Sitio» Elkarteak antolaturiko «Gabriel Aresti» poesi lehiaketan; hiriburu berbereko «Iruña Kafetegi»ko nobela laburren sariketan; eta Debako Udalak babestutako haurren ipuin sariketan ere.



---

— Gure Erakundeak, Real Academia Española, Real Academia Galega eta Institut d'Estudis Catalans-ekin batera, ordezkari Alfontso Irigoien euskaltzaina dela, 1983.ean eman diren Sorpen Literariorako Laguntzen banaketan parte hartu du.

— Aipatu erakundeekin eta zenbait gehiago tartean zirela, 1983.ari zegozkion Espainiako hizkuntzen arteko Itzulpenen Sariketa Nazionalean parte hartu zuen. Patxi Altuna euskaltzaina izan zen ordezkari.

— Espasa-Calpe Argitaratzailearen eskariz, Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi euskaltzain Idazkariari eskatu zitzaion, Resurreccion Maria de Azkueren *Euskalerrriaren Jakintza* obra erraldoiaren argitaraldi berrirako hitzaurre eta oharrak presta zitzaion.

— Zarautzko Udalak deituriko «Lizardi 1984» sarirako, gure Erakundeak begi onez ikusi du Federiko Krutwig euskaltzaina ordezkari izendatzea.

---

### 3.1.1. Euskal Idazleen Elkarte

Euskaltzaindiko *JAGON* Sailak sortu zuen 1982.ean eta behar ziren arteketak egin zituen, nortasun juridiko propioz funtziona zezan. Baimena 1983. urteko Urtarrilean bereganatu zuen. Elkarte honen jagon sailak, *Hegats* Buletinaren hiru lehen zenbakiak egiten lagundu du. Beraietan, elkarteari dagozkion zeregin berezietan gain, konstituzio dokumentuak, estatutuak, orientabiderako arauak etab. biltzen dira. Denak ere interes haundikoak idazleentzat. Orobat, *Egan* aldizkari literarioaren erredakzioan parte hartzeko, Gipuzkoako Foru Diputazioko «Julio de Urquijo» Euskal Filologiako Mintegiaz egin ditu behar ziren arteketa lanak.

---

### 3.2. Bertsolaritza Batzordea

1983. urtean zehar, aurreko urtean egindako Bertsolari Txapelketako liburua prestatu eta argitaratu du.

Euskal kulturaren aberastasun berezia biltzen duen liburu hau, dagokion *JAGON* Sailean dator: (*JAGON I*).

Urteon, 1984.ean, oraintxe ari den Nafarroako Bertsolarien Txapelketan nahiz Arabako Bertsolari Txapelketan laguntzen du.



---

Euskaltzaindiak bere lankidetzaren eman dio Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintzialari, «Bertso Paperak», «Xenpelar» sariko Epaimahaira Alfontso Irigoien, Emile Larre, Antonio Zavala, Juan M.<sup>a</sup> Lekuona eta Antton Aranburu bidaliz.

---

### 3.3. Etsaminen Batzordea

---

Batzorde honek bi funtzio betetzen ditu, hots:

- Administrazioko lantokietarako frogak aztertzen dituzten Epaimahaietan parte hartu eta,
- «Euskararen Gaitasun Agiria» lortzeko azterketak deitu eta zuzendu.

Lehen betekizuna dela eta, Euskaltzaindiak 33 frogatan esku hartu du, 1983an: Bizkaiko Foru Diputazioan, Durango, Arrigorriaga, Elorrio, Bilbo, Deba, Basauri, Erandio, Etxebarri, Muxika, Larrabetzu, Abadiño, Zornotza, Orozko, Berriz, Arrankudiaga, Barakaldo, Gernika-Lumo udaletan, denak Bizkaian, lanbide desberdinetarako. Atal honi gehitu behar zaizkio Durangoko eta Galdakaoko Ikastolek egindako azterketak, baita Bilboko T.V.E. eta Telenavarrakoei egindakoak ere.

Bigarren atala dela eta, «Euskararen Gaitasun Agiria»ri —Komunitate Autonomo osoan indarrean denari— buruzko kompetentziak, Eusko Jaurlaritzaren esku geratu direnez, Euskaltzaindiak Nafarroan bakarrik deitzen ditu titulu horretarako azterketak:

- 1983.ean bi deialdi egin zituen, emaitza honekin:
  - Ekaina, aurkeztuak 166, gaindituak 97.
  - Urria, aurkeztuak 136, gaindituak 55.
- 1984.ean, bi deialdi zabaldu dira, emaitza hauekin:
  - Ekaina, aurkeztuak 280, gaindituak 98.
  - Urria, aurkeztuak 310, gaindituak 107.

Zifra hauek aurreko urteetako batzen badizkiegu, 1972.etik 1984.era gure Erakundeak banatu dituen tituluen kopurua 6.622ra heltzen zaigu.

### 3.4. Oinarrizko Euskararako Batzordea

Oinarrizko Euskararako Batzordeak 1983. urtean zehar, lan hauek burutu ditu:

- *Gidaliburua mailaz maila* liburuaren argitalpena. Euskararen irakaskuntza mailaka eraman ahal izateko egina.
- *Harriak* liburuaren argitalpena: *Hitz egin* metodoaren arabeko irakurgaiak, bigarren mailan.
- Imanol Unzurrunzagak, Batzordeko idazkariak, prestatutako txostena Batzordeak egindako lana bildurik *Zutabe* aldizkarian argitaratu zen.

1984.ean argitaratu duena:

- *Ipuin Beltzak: Hitz egin-en* arabeko irakurgaiak, hirugarren mailan.



---

## 4. Itzulpenak

---

---

### 4.1. Itzulpen eta Kontsulta Zerbitzua

---

Azpimarkatzeko arazoa dela uste dugu 1983. eta 1984. urteetan laurehun itzulpen baino gehiago burutu dituela zerbitzu honetako arduradunak; berauetariko zenbaitzu hitzarmen kolektiboak izan direlarik, hots, Iberduero, Petronor, Bizkaiko Labe Garaiak, Bizkaiko Etxegintza, etab.

Bestalde aipa ditzagun itzulpena egin zaizkien izen batzu, alegia:

— Erakunde ofizialak: Telefónica, Bilboko Nazioarteko Erakustazoka, Bilbo Haundiko Uren Partzuergoa, Eusko Jaurlaritzaren Kirolen Lurralde Zuzendaritza, Bizkaiko Gobernu Zibila, Arabako Gobernu Zibila, Bizkaiko Foru Diputazioa, Gipuzkoako Foru Diputazioa.

— Banku eta Aurrezki Kutxak: Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Bilbo Aurrezki Kutxa, Banco de Bilbao, Banco Atlántico, Lankide Aurrezkoa.

— Publizitate enpresak: Aurman, Deimos, Diseño, J. Euba, Gurrutxaga.

— Beste zenbait enpresa eta partikularrak: El Corte Inglés, Artes Gráficas Lerchundi, Imprenta Industrial, Edigol Ediciones, Ediciones Beascoa, S. A., Laboratorios Lacer, Traducciones Pawlowsky, Estarta y Ecenarro, Sociedad El Sitio, Vidrieras de Alava, Norte Industrial, Oxiven, La Fe Baha'i, Fotocomposición Rali, Imprenta Amado, Sociedad Cooperativa Elkar.



---

---

— Aldi berean zerbitzu honek kontsulta mailan, bai telefonoz eta bai idatziz, hurrengo gaiei erantzuna eskaini die, alegia: euskara ikasteko metodogintza, euskal gramatika, mailakaturiko irakurketa, alfabetatze orientabideak, oposaketetarako prestakuntza hizkuntzari dagokiolarik, hiztegi-gintza, etab.

---

## 4.2. Itzultzaile Eskola

---

1980. urtean Euskaltzaindiak Itzultzaile Eskola sortu zuen Donostian, 1980-1981 ikasturtean abian hasiz. Gero 1983. urteko Irailaren 19an, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntz eta Kultura Saileko erabakiaren babesean lortu du behin betiko status delakoa. Dagoeneko bostgarren ikasturtean jarraitzen du Xabier Mendiguren euskaltzain urgazlearen zuzendaritzapean.

---

## 5. Biblioteka eta Argitalpenak


---

### 5.1. «Azkue Biblioteka»

---

Euskaltzaindiaren Bibliotekak, egun 35.000 bolumen baino gehiago dauzkalarik, azken bi urteotan nabarmenki gehitu du bere ondarea. Eta aipaturikoa azpimarkatzeko urteotan sartu diren liburu eta aldizkarien kopurua eskaintzen dugu: batzuk erosiak, beste batzuk trukez jasoak edo baita dohainik emandakoak ere.

Urtea	Orotara	Erosi/trukez	Dohainik
1983	6.027	1.392	4.635
1984	7.103	4.063	3.040
	13.130	5.455	7.675





---

Aipaturiko ondare honetan Norbert Tauer ohorezko euskaltzainaren bildumako 703 ale azpimarratu behar ditugu, berauek liburu bakan eta oso bilatuak baitira. Bilduma osoaren katalogoa **Euskera** (1984,1) agerkarian argitaratu du Euskaltzaindiak.

Bestalde, 1984. urtean Ernesto Ortiz de Bidasolo jaunaren liburutegia erosi du, XVI. mendetik honako euskarazko ondare aberats eta liburu baliotsuak aurkitzen dituen. Hauetaz gainera hainbat eta hainbat dokumentu sartu ditu Euskaltzaindiak bere Bibliotekan, hots, Jokin Zaitegi, Andima Ibinagabeitia, etab. berauetariko batzutan jadanik argitaratuak eta beste zenbaitzu argitaragabeak.

1984. urtean Juan Carlos Gerra euskaltzainaren Biblioteka eta Artxibategiko katalogoa bukatu du, bertan 2.796 liburu eta inprimakien sarrera eta 2.078 artxibo dokumentuak agertzen direlarik guztiok XV. mendetik honantz datatuak. Bestalde «Azkue Biblioteka» honetan eta baita Gipuzkoa, Nafarroa eta Bizkaiko Diputazioetan dauden Bonaparte Printzearen eskuskribu eta argitalpenen katalogoa Carlos González Echegaray jaunak burutu du eta Euskaltzaindiak **Euskera** (1984,1) agerkarian argitaratu.

«Azkue Biblioteka»k 1984. urteko Urtarrila-Otsailean, Parisko «Expolanges» delakoan parte hartu zuen, bertarako hainbat liburu utzirik, batez ere euskarazko gramatika eta metodoak; bestalde, erakusketa honi dagokion katalogoa ere prestatu zuen Parisen banatu ahal izateko.

Era berdinean, Euskaltzaindiak 1984.eko Irailean Iruñean eginiko Biltzarrean ere, «Azkue Biblioteka»k gramatiken erakusketa monografikoa egin zuen katalogo eta guzti.

1983-1984 urteotan «Azkue Biblioteka» izan da Euskal Herriko biblioteken artean ale gehienez jabetu dena. Honela Euskaltzaindiaren Biblioteka, nahiz eta instalakuntzen aldetik egoera kaxkarretan izan —Erribera kalean— euskal literatura eta hizkuntzan ondoen hornitua dela adierazi behar dugu, eta baita, orokorki harturik, euskal kulturari dagokion alorrean ere. Euskaltzaindiaren Bibliotekak Hemeroteka bikaina gordetzen du bertan hirurehun egunkari eta aldizkari baino gehiago jasoz eta berauek mundu guztikoak izanik.

«Azkue Biblioteka»ko fotokopien zerbitzu bitartez bertara datozen irakurle eta ikertzaileen eskakizunei erantzuten ahalegintzen gara. Zerbitzu honetara hainbat zentru ofizialek jotzen dute, hots, Madrideko «Centro de Investigación y Documentación del Consejo Superior de Investigaciones Científicas», Euskal Herriko Unibertsitatea eta atzerrikoek

---

ere, berauen artetik gehien nabarmentzen dena Euskal Herriko Filosofi-Letretako Fakultatea izanik.

Aipaturiko guztionek zera aditzera ematen du, alegia, «Azkué Biblioteka»k egun daukan tokia txiki gelditu dela eta zerbitzu bikaina eskaintzeko desegoki. 1985. urtean Egoitza berrira joateko asmoz ari garenez, uste dugu goian aipatu arazoak konponduko dituela. Egoitza berriaz ba ditugu zenbait proiektu burutu nahiezkoak, alegia, mikrofilmazioa, koadernaketa eta informatika tratamendua, etab.

Hau dela eta, «Azkué Biblioteka», jendeari irekia, Euskal Herriko hizkuntza eta kultura sailean daukagunik osoena dela adierazi ahal dugu. Eta guztiau, Euskaltzaindiak honetan ipini duen oldarrari esker egin ahal izan da.

---

## 5.2. Argitalpenen Batzordea

---

Batzorde honek 1983. urtean bere Barne Erregela Bereziak landu zituen eta 1984.eko Urtarrilaren 27ko batzarrean onartuak izan ziren. Berauek **Euskera** (1984, 1) zenbakian argitaratu zituen Euskaltzaindiak.

Batzorde honen begipean Euskaltzaindiak 1983 eta 1984. urteetan hurrengo liburuok argitaratu ditu, hots:

1. **Euskera** (1919-1953), Euskaltzaindiaren egerkari ofizialaren berrargitalpena. 17 tomo eta Donostiako Sendoa, S. A. Argitaldariaren diru laguntzaz.

2. **Euskera** agerkaria, 1982.eko bigarren seihilabeteetako lanez.



3. **Euskera** agerkaria, 1983.eko lehen seihilabeteetako lanez.

4. **Euskera** agerkaria, 1983.eko bigarren seihilabeteetako lanez.

5. **Euskera** agerkaria, 1984.eko lehen seihilabeteetako lanez.

6. *IKER-2: Piarres Lafitte-ri omenaldia/Homenaje a Pierre Lafitte/Hommage à Pierre Lafitte*. Elkarlanean. Lan bilduma. Lehen parteko 729 orrialdeak hizkuntza eta literatura ikerketaz, eta bigarren parteko 187 etnografia, historia eta izendegiaz. Gipuzkoako Foru Diputazioaren babespean argitaratua.

7. *IKER-3: Erizkizundi Irukoitza/Triple Questionario/Triple Questionnaire*. Ana Maria Echaideren prestakuntza eta aurkibideak. Bi tomo. 1924-1925 urteetan R. M. de Azkueren zuzendaritzapean Euskaltzaindiak



dialektologiaz egin zituen inkestak. Lehen tomoa testuz beraren aurkibideez eta bigarrena 350 mapaz osatua. Bizkaiko Foru Diputazioaren babespean argitaratua.

**8.** *JAGON-1: Bertsolari Txapelketa 1982.* 1982.eko Bertsolari Txapelketaren azken eta azkenaurreko saioak biltzen dira bertan haietan erabilitako 80 doinuen musikazko pentagramak, antolakizun xehetasunak eta kronika.

**9.** «Euskararen Lekukoak» (Testigos de la Lengua Vasca) bilduman hurrengo hauek:

**9.1.** *Mendibururen idazlan argitaragabeak.* 2 liburu. Bildumako 4. zenbakia. Patxi Altunak paratua. Tituluak berak

dioen bezala, Mendiburu (1708-1782) oiartzuarraren lan argitaragabeak biltzen dituzte bi tomoek. Mensajero eta Euskaltzaindiak elkarrekin argitaratua.

**9.2.** *Kredo edo sinhesten dut esplikatua.* Etienne Lapeyre (1840-1893). Luis Villasantek paratua. Lapeyre lapurtar idazlearen edizio kritikoa, hiztegia erantsiz. Etienne Lapeyrenen liburu hau Bizkaiko Bankuaren laguntzaz argitaratu zuen Euskaltzaindiak. Bildumako 5. zenbakia.

**9.3.** *Lehen liburua edo filosofo huskaldunaren ekheia (1785).* Jusef Egiategi. Txomin Peillenek paratua. Egiategi zuberotarrak 1785.ean filosofiaz idatzi zuen liburuaren lehen argitalpena dugu liburu hau. Gipuzkoako Foru Diputazioaren babespean argitaratua. Bildumako 6. zenbakia.

**9.4.** *Catechima laburra edo Jesus-Christ goure ginco Jaunaren eçagutçia salvatu içateco.* Athanase Belapeyre. Jean Louis Davantek paratua. XVII. mendeko Belapeyre idazle zuberotarraren lanen edizio kritikoa hiztegia erantsiz. Gipuzkoako Foru Diputazioaren babespean argitaratua. Bildumako 7. zenbakia.

**9.5.** *Eguia catolicac salvamendu eternalaren eguiteco necesario direnac.* Bernard Gasteluçar. Lino Akesolok paratua. Gasteluçarren (1619-1701) poeziako edizio kritikoa. Gipuzkoako Foru Diputazioaren babespean argitaratua. Bildumako 8. zenbakia.

**9.6.** *Koplak.* Joakin Lizarraga, Elkanokoa. Juan Apececheak paratua. Lizarragaren (1748-1835) koplak argitaragabeen edizio kritikoa hiztegitxo batez. Gipuzkoako Foru Diputazioaren babespean argitaratua. Bildumako 9. zenbakia.

**9.7.** *Ongui iltzen laguntzecó itzgiaic.* Joakin Lizarraga, Elkanokoa. Francisco Ondarrak paratua. Lizarragaren (1748-1835) obretariko baten edizio kritikoa, hiztegia erantsiz. Gipuzkoako Foru Diputazioaren babespean argitaratua. Bildumako 10. zenbakia.

**10.** Resurreccion Maria de Azkueren *Diccionario Vasco-Español-Francés* berrargitalpena. Faksimilezko berrargitalpena, Fr. Luis Villasante Euskaltzainburuaren hitzaurrez eta Luis Mitxelenaren sarreraz Hiztegiaren iturrien ikerketaz eta beroni hiztegiñoa gehituz.


**11.** *Euskaltzaindiaren historia laburra.* Euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez, ingelesez eta alemanieraz. Bertan Euskaltzaindiaren sorreratik gaur egun arteko historia laburra azaltzen zaigu. Bizkaiko Foru Diputazioaren babespean argitaratua.



---

**12. *Juan Bautista Gamiz Ruiz de Oteo*** (1696-1773). Gamiz XVIII. mendeko arabar euskal-erdal olerkaria (1696-1773) Sabandoko olerkariaren elebidun obraren edizio kritikoa. Beronen literatura balioari Araba Ekihegoaldeko euskal literaturaren lekukotasun bakarra izatearena gaineratu behar zaio. Arabako Foru Diputazioaren babespean argitaratua.

**13. *Haur antzerki***. Marijanne Minaberry. 1982. urteko «Toribio Altzaga» saria. Bizkaiko Aurrezki Kutxak babesturiko argitalpena.



**14. *Emeki itxaropendutako egunkaria***. Jose Ignacio Ansorena. 1982. urteko «Felipe Arrese Beitia» saria. Bizkaiko Aurrezki Kutxak babesturiko argitalpena.

**15. *Euskal Izendegia/Nomenclátor onomástico/Liste de prenomes basques*** (3. argitalpena). Jose Maria Satrustegik paratua. Pertsona Izendegiaren zerrenda nornahiri aukera emateko bildua, berauek jarteko legearen berri emanez. Lankide Aurrezki Kutxak eta Euskaltzaindiak elkarrekin argitaratua.

**16. *Harriak*** Xabier Amuriza. Oinarrizko Euskararako Batzordeak prestatua. (1. argitalpena 1983. urtean eta bigarrena 1984.ean). Euskara ikasleentzat bigarren mailako irakurgaiak. Iberduero Euskal Kultur Mintegiaren laguntzaz argitaratua.

---

17. *Merkatalgo Izendegia, kargu eta bilera-lekuena/Nomenclátor Comercial/Vocabulaire du Commerce.* (2 argitalpena). Xabier Kintanak paratua.

Hiztegia eta beste zenbait gomendio merkatalgo-izenen erabileraz.

Bizkaiko Aurrezki Kutxaren bebespean argitaratua.

18. *Ipuin beltzak.* Xabier Arzelus. Oinarrizko Euskararako Batzordeak prestatua. Euskara ikasleentzat hirugarren mailako irakurgaiak Iberduero Euskal Kultur Mintegiaren laguntzaz argitaratua.

19. *Euskaltzaindiaren argitalpenen katalogoa/Catálogo de publicaciones de la Real Academia de la Lengua Vasca/Catalogue des publications de l'Académie de la Langue Basque.* Katalogo honetan Euskaltzaindiak berak bakarrik eta Herri Erakunde zein partikularren laguntzaz argitaraturiko liburuak azaltzen ditu zenbait zehaztasun eta azalpen laburrez.

---

### 5.3. Argitalpenen Banaketa Zerbitzua

---

#### **Argitalpenen katalogoa**

Egun Euskaltzaindiak argitalpenen katalogo liburuska argitaratzen du. Bertan 115 lan azaltzen dira. Liburuon zabalkundea banaketa zerbitzuaren bidez eta zenbait banaketa enpresa pribaturen bidez egiten du Euskaltzaindiak.

#### **EUSKERA agerkaria**

**Euskera** agerkaria, Euskaltzaindiaren agerkari ofizialak, 508 abonatu dauzka. Bestalde Euskal Herriko erakunde, entitate eta biblioteketan banatzen da Euskaltzaindiak eta baita Estatu eta nazioarteko mailan ere, beraien argitalpenen trukez.

#### **Gordailua eta liburuen salmenta**

Euskaltzaindiak bere katalogoko aleez 200.000 liburutik gorako gordailua dauka, guztiok salgai dituelarik.

1983. urtean 24.500 liburu saldu zizkien bai partikularrei eta bai erakundeei ere.

Era berdinean, 1984. urtean, 35.500 liburu saldu ditu. Euskaltzaindiak 1984.eko Urriaren 26ko Batzarrean argitalpenen stock eta baita egun gordailu eran errentaz

---

daukanaren toki eza eta dagoen egoera kontutan harturik, Etxebarri herrian, gutxi gora-behera 875 metro karratudun industri solairua erostea erabaki zuen.

### **Liburu Azokak**

Azken lau urteotan, ezaguna denez, Euskaltzaindia Liburu Azoketan izan da, berauek Eusko Jaurlaritzak antolatzen dituelarik; eta urtero, duela hamazortzi urte, Durangoko Liburu eta disko azokan.

Euskaltzaindiko salmenta zerbitzu honek, «Azkue Biblioteka»rekin batera, 1983. urtearen amaieran Parisko «Expolangues» Nazioarteko azokan parte hartu zuen.



## 6. Ekonomia

Ekonomi Batzordea, Endrike Knörr Diruzainak, Juan Jose Zearreta Ekonomi Eragileak, Xabier Gereño Kontulariak eta zenbait aholkularik osatzen dute. Berauek hileroko bigarren astelehenetan egiten dute bilkura.

Erabiltzen dituen arazo ugari eta garrantzizkoak kontutan harturik eta Arautegiko 16. artikulua araberak, bilkuretan aholkulari bik parte hartzen dute, bata ekonomi sailean aditua eta bestea gai juridikoetan.

Era berean, gaien araberak, Idazkariordeak, *JAGON* Sailburuak edo Argitalpenen banaketa zerbitzu arduradunak parte hartzen dute.

Bestalde, gai arrunten artean, Euskaltzaindiak daukan ondarearen inbentarioa, argitalpena, artxibategi «Azkue Biblioteka»ren aseguruak, erakundeen arteko harremanetarako liburua, gordailu berria etab. gaurkotze ahaleginak aipagarri ditugu.

Epe honetako gaien artean, Euskaltzaindiak bere langilegoarekin sinaturiko hitzarmen kolektiboa azpimarratu ahal dugu.

### 6.1. 1983. urteko Balantzea

#### Sarrerak

Diputazioetatik jasoa		20.000.000
Araba	4.000.000	
Bizkaia	7.000.000	
Gipuzkoa	7.000.000	
Nafarroa	2.000.000	
Eusko Jaurlaritza		9.800.000
Estatuko Aurrekontuak		1.500.000
Udalek		1.500.000
Banku eta Aurrezki Kutxek		4.500.000
Partikularrek		2.500.000
Salmentek		8.000.000
Bestek		500.000
	<b>OROTARA PZTA.</b>	<b>48.300.000</b>

#### Gastuak

Euskaltzainburugoaren asignazio eta dietak	3.300.000	
Batzordeen sesio eta bileretako gastuak	4.800.000	
Langilegoaren soldadak	21.300.000	
Segurantzak Sozialak	7.300.000	
Funtzionamendu gastuak	3.700.000	
<b>Euskera</b> agerkaria	4.500.000	
«Azkue Biblioteka»	2.200.000	
Bestek	1.200.000	
	<b>OROTARA PZTA.</b>	<b>48.300.000</b>



---

## 7. Aurkitegia

---

---

### **EGOITZA**

Arbieto, 3 - 48008-BILBO

Tel. (94) 415 81 55

Arduraduna: Jose Luis Lizundia

---

### **«AZKUE BIBLIOTEKA»**

Ribera, 6 - 48005-BILBO

Tel. (94) 415 27 45

Arduraduna: Jose Antonio Arana Martija

---

### **GORDAILUA**

Ntra. Sra. del Camino, 15-3.º - 48012-BILBO

Tel. (94) 415 81 55

Arduraduna: Rosa M.<sup>a</sup> Arza

---

## Ordezkaritzak

---

---

### **ARABA**

San Antonio, 41 - 01005-GASTEIZ

Tel. (945) 23 36 48

Ordezkarria: Endrike Knörr

---

### **GIPUZKOA**

Txurruka, 7-2.º - 20004-DONOSTIA

Tel. (943) 42 80 50

Ordezkarria: Juan San Martin

---

### **NAFARROA**

Museo de Navarra - 31001-IRUÑEA

Tel. (948) 22 34 71

Ordezkarria: Jose M.<sup>a</sup> Satrustegi

---

### **IPARRALDEA**

15 rue Port Neuf - 64100-BAIONA

Tel. 07/3359-256426

Ordezkarria: Jean Haritschelhar

---



